



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhoa Mindeguia Santesteban
Pedro Hilario Santesteban Loyarte

2025eko ekainaren 6an, 8:00tan, ez-ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. XEHETASUN AZTERLANA 4. POLIGONOKO 918. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Udalburuak azaldu du aipaturiko Xehetasun Azterlanari hasierako onespena eman ziola Zubietako Udalak 2024ko azaroaren 28ko osoko bilkuran; espedientea jendaurrean egon zen 2024ko abenduaren 19ko 257. NAO-n, inork alegaziorik aurkeztu ez zuelarik.

Udal arkitektuaren txostenean aipatzen zenez katastro aldatu ondoren bakarrik eman ahal izango zaio Xehetasun azterlanari behin betiko onespena, zehetasun azterlaneko zehaztapenak balio osoz erregistratu ahal izateko.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63. eta 74. artikuluekin bat etorriz, Udalbatzak **erabaki du:**

- 1.- 4. poligonoko 918. lurzatiaren xehetasun azterlana behin betiko onestea.**
- 2.- Akordio hau NAO-n argitaratzea Xehetasun azterlanaren testuarekin batera.**
- 3.- Akordioa interesdunei jakinaraztea.**